

1152/2025 EBAZPENA, maiatzaren 12koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Anestesiologia eta Bizkorketako (Minaren Unitatea) Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.

AURREKARIAK:

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerentearen martxoaren 24ko 807/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Anestesiologia eta Bizkorketako (Minaren Unitatea) Atal Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko apirilaren 9ko EHAA 69 zk. eta 2025eko apirilaren 12ko BOE 89 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko maiatzaren 8an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Anestesiologia eta Bizkorketako (Minaren Unitatea) Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Barakaldo, 2025eko maiatzaren 12a



Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako zuzendari gerentea,
María Luz Marqués González

ERANSKINA

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESI

ANESTESIOLOGIA ETA BIZKORKETAKO (MINAREN UNITATEA) ATAL
SANITARIOKO BURUA

BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK

Onartuak:

D^a. Deiene Lasuen Aguirre and.

Baztertuak:

Inor ez